

Sartzeko zure ekipoa konfiguratu ezazu

JustiziaSip-en lehen aldiz sartu behar bazara, lehenik eta behin [sarbiderako gutxieneko baldintzak](#) atalean ageri diren konfigurazioa eta baldintzak betetzen dituzun ala ez kontsultatu ezazu.

Profesionalen estranetera sartzeko nahitaezkoa da **Idazki Desktop** behar bezala instalatuta izatea (Izenperen sinatzeko tresna). Horrez gain, komenigarria da Idazki Desktop PINa berrerabiltzeko konfiguratzea, iristen zaizun jakinarazpen bakoitzeko PINa sartzan ibili behar ez izateko.

- [Idazki Desktop Windows-en instalatzeko gida](#)
- [Idazki Desktop Mac-en instalatzeko gida](#)
- [Idazki Desktop Linux-en instalatzeko gida](#)
- [PINa berrerabiltzeko Idazki Desktop konfiguratzeko gida \(Windows eta Mac\)](#)

Idazki Desktop Windows-en instalatzeko gida

Zure ordenagailuak behar duen bertsio egokia deskargatu (32 bit edo 64 bit):

- [Idazki Desktop 32 bits](#) 
- [Idazki Desktop 64 bits](#) 

Zure ordenagailuak zein bertsio behar duen jakiteko, hurrengoa egin behar duzu:

Windows 7: Hasierako menuan edo mahaigainekoan "Ordenagailua" ikonoa aurkitu behar duzu. "Ordenagailua" ikonoaren gainean saguaren eskuineko botoiarekin sakatu eta "propietateak" aukeratu.

Windows 8 eta 10ean: "Ordenagailua" ikonoaren gainean saguaren eskuineko botoiarekin sakatu eta "Sistema" aukeratu.

Deskargatu ostean, instalazioa abiatzeko, artxiboa exekutatu behar duzu.

Pantaila beltz bat agertuko da, hitz batzuk idatzita, eta ondoren pantaila desagertu egingo da.

Pantaila beltz bat agertuko da, hitz batzuk idatzita, eta ondoren pantaila desagertu egingo da.


Idazki Desktop Mac-en instalatzeko gida

Mac-erako bertsio zuzena deskargatu: [Idazki Desktop MAC](#) .

Deskargatu ostean, artxiboa exekutatu behar duzu eta aplikazioaren kokapena aukeratu behar duzu (aplikazioak, mahaigainekoa...).

Artxiboa exekutatzeke arazoak badituzu, fidagarritasun ezarpenak aldatu behar dituzu; horretarako "Preferencias del Sistema" atalean sartu, bertan "Seguridad y Privacidad" aukeran sakatu eta bertan Idazki desktop exekutatzeke baimena eman behar duzu.

Idazki Desktop Linux-en instalatzeko gida

Idazki Desktop deskargatzeko orrian zure sistemarentzat egokia den bertsio aukeratu behar duzu: [Idazki Desktop Linux](#) .

Zure sistemak zein bertsio behar duen jakiteko, Terminala ireki eta "Iscpu" idatzi; hori egin ostean, arkitektura agertuko da. Ondoren saguaren eskuineko botoia sakatu eta "Guardar enlace como" aukeratu (artxiboak "RUN" luzapena du).

Deskargatuta dagoenean, deskargatu duzun lekura joan eta exekutatu egin beharko duzu.

Zure ordenagailuaren bertsioa 32bit-ekoa bada: `sh ./idazki-desktop-linux32.run`

Zure ordenagailuaren bertsioa 64bit-ekoa bada: `sh ./idazki-desktop-linux64.run`

PINa berrerabiltzeko Idazki Desktop konfiguratzeko gida (Windows eta Mac)

Jakinazpen bakoitza iristen denean PINa sartzen ibili behar ez izateko, PINa berrerabiltzeko agindua eman dezakezu:

- [Deskargatu PINa berrerabiltzeko Idazki Desktop konfiguratzeko gida \(Windows\)](#) .
- [Deskargatu PINa berrerabiltzeko Idazki Desktop konfiguratzeko gida \(Mac\)](#) .

ADI EGON: Pausu guztiak jarraitzeko ordenagailuan administratzailearen baimenak behar dituzu.

Laguntza behar izanez gero, JustiziaSip-eko SAP-arekin harremanetan jar zaitez: 945 01 63 00 edo sap@justizia.eus.